

**BERGARAKO 2030 AGENDAREN PLAN ESTRATEGIKO JASANGARRIA ADOSTEKO PROZESUA
EKONOMIA-MAHAIAREN 1. BILERA**

Bertaratutakoak:

- Gorka Artola (Alkatea)
- Ainhoa Lete (Sustapen ekonomikoa, berrikuntza, ekintzailetasuna eta turismoa arloetako udal-hautetsia)
- Maite Agirre (EAJ-PNV udal-taldeko ordezkaria)
- Marije Unamuno (garapen teknikaria)
- Juan Bautista Ayerbe (Enpresare eta FEXeko ordezkaria)
- Leire Garmendia (Izadi 21 aholkularitza-taldea)
- Eurne Simón (Izadi 21 aholkularitza-taldea)

Bertaratu ez direnak eta ekarpenak bidali dituztenak:

- Koldo Azkoitia (Debagoieneko mankomunitatea)
- Xabier Berasategi (Grupo TTT)
- Gotzon Arzelus (Batura Mobile)
- Miguel Lazpiur (Construcciones Mecánicas Lazpiur)

Bileraren hasiera-ordua: 10:00.

Udalak kontratutako aholkularitza-enpresako kideek, akta honekin batera doan aurkezpenaz baliatuz, "Bergara 2030 egin herrixa" prozesuaren baitan diseinatuko den Bergarako Plan Estrategiko Jasangarria diseinatzeko aurrera eramango den parte-hartze prozesua (bai udal mailan zein herritarrekin) azaldu dute eta bide batez, prozesuaren beraren mugarririk zeintzuk izan diren laburbildu dute.

Ondoren, ekonomia-mahaiaren 1. Saioko helburuak 2 direla aipatu dute (aholkularitza-taldeko kideek zuhaitz batean irudia erabili dute azalpenak emateko):

- 1) Gaur egun Bergarak dituen ahuleziak eta beharrak antzematea, eta baita, potentziatu beharreko indarguneak ere. Horiek guztiak zuhaitzaren sustraiak izango lirateke.
- 2) Egungo egoeratik abiatuz, 2030 urtera begira irudikatzen dugun Bergara lortzeko helburuak adostea. Helburuak zuhaitzaren etorkizuneko fruituak izango lirateke.



2 horiek erdiesteko asmoz, dinamika ezberdinak garatu dira bileran zehar eta honakoak dira lortutako emaitzak:

LEHEN DINAMIKA: ZUHAITZAREN SUSTRAIAK ZEINTZUK DIREN ZEHAZTEA

Lanketa hau egiteko, batetik udalerriko garapen ekonomikoaren ikuspuntutik gaur egun dauden ahuleziak eta beharrak antzeman dituzte bertaratutakoek, eta bigarrenik, garapen ekonomiko ahalbidetzeko herriak dituen indarguneak zerrendatu dituzte. Horiek guztiek irudikatu dugun zuhaitzaren oinarria (hau da, sustriak) osatu dute, etorkizuneko erronkak eta helburuak finkatzen lagunduko digutenak.

AHULEZIAK ETA BEHARRAK:

Lehen sektorea:

- Lur-falta (nekazaritza jarduera garatzeko, abeltzaintza garatzeko, etab.). Baserrikoa ez dena edo landa lurretara sarbidea izan ez duenarentzat oso zaila izan daiteke sektorean aritzea, baina alokairua edo lagapenen bitartez saihestu izan da arazo hori kasu batzuetan.
- Laborantza sektorean aritzeko, maiz, egin beharreko inbertsioak altuak izaten dira eta, dena dela, gaur egun lehen sektorean aritzeko, ekintzailea izateaz gain, bokazio indartsua izan behar da eta landa lanak eskatzen dituen lan baldintzetara egokitzeko prest egotea.
- Elikadura-burujabetzarako baliabide eskasak (lurrak, baliabide pertsonala, etab.)
- Basoen kudeaketa desegokia

Enpresen mundua:

- Enpresa txikien kudeaketa-maila: tekniko oso onak daude enpresa hauetan baina kudeatzaile eskasak dira.
- Enpresa traktoreen eskasia
- Ekintzailetasuna sustatzeko beharra, besteak beste, ekonomia zirkularra bezalako arloetan
- Tamaina handiko enpresak desagertzen doaz
- Enpresen batezbesteko tamaina txikia da (halako enpresak sentiberagoak eta kalteberagoak dira)
- Bergarak behar du proiektu potente bat, trakzioa egingo duena eta bere inguruan enpresa auxiliarrak edo txikiagoak sortuko dituena.
- Urteetan zehar, enpresak hazi egin direla ikusi dugu, eta gero desagertu egin direla, horrek Bergarako gizarte osoari eragiten dio.
- Enpresa garrantzitsuak saltzeak, normalean, onartzen ez bada ere, erabakiak hartzeko guneak lekuz aldatzea dakar berekin.

Enplegua:

- Lan-eskaintza publiko gutxi dago (areagotzeko beharra). Lan eskaintzak sortzeko edo areagotzeko, enpresa pribatuekin lankidetzat bultzatu daiteke. Eragileetako bat, aldiz, ez dago ados horrekin eta bere ustez, enplegu-gabezia ez da enplegu publikoa sortuz konpondu behar, horrek gastu publikoaren hazkundea dakarrelako.

- Lanpostu prekarioak 3. Sektoreko zenbait establezimendutan.
- Begarako herri ekonomian, Bergaran bizi baina kanpoan lan egiten duten herritarren pisua ez dakigu zenbatekoa den, beste herri batzuekin alderatuta. Badirudi pisu hori ez dela txikia. Beraz, Bergarak sortuko duen "lan-eskaintza" pertsona hauei helarazi beharko genieke.
- Enpresa publiko zein pribatuetan ditugun absentismo-indize handiak, zerrendako azkenak badira ere duela ez urte asko, orain rankingeko lehenak gara, Bergara ez da salbuespena, eta hori zuzenean doa tokiko zein herrialdeko lehiakortasunaren aurka.

Industria-sektorea:

- Industriaren eraldaketa behar handia sumatzen da. Inguruan gertatzen diren egoerei aurrehartzeko zailtasunak.
- Lurren erabilera/horien helburuak berbideratzeko baldintzak.
- Lur industrialen arazoa: industria gunek zaharkituta daude, pabilioiak txikiak dira eta partzelak desegokiak. Poligono berrietako prezioak garestiak dira.
- Ia hutsik dagoen industrialde bat izatea, deslokalizatzen diren enpresak dituen.

3. sektorea (zerbitzuak, merkatariak, ostalariak, ..):

- Sortutako lankidetzak-sareak mantentzeko eta bertan dauden kideen motibazioa mantentzeko zailtasunak.
- Merkatarien digitalizazio-falta
- Ostalaritzan profesionalizazio-falta
- Ostatuen gabezia (ostatu gutxi)
- Lokal ugari hutsik

Bestelako ahuleziak:

- Begarako hirigune historikoaren degradazioa
- Aparkaleku (parkinak) gutxi hirigune historikoan edo gertuko eremuetan
- Balio tradizionalak galtzea, erantzukizuna, erantzunkidetasuna, ilusioa, konpromisoa, ondo egindako lanarekiko maitasuna, etengabeko ikaskuntza.

INDARGUNEAK ETA AUKERAK:

- ✓ Udala eta SPRIren arteko negoziazioei heltzea. Industria guneen hobekuntza bultzatzeko asmoz, inbertsioak egitera zuzendutako apustu ekonomikoa.
- ✓ Kultura ekonomikoan sakontzeko aukerak (ez industria-sektorean bakarrik)
- ✓ Enpresa ezberdinen arteko saretzea. Datozen urteetan lan-aukera berriak sor daitezke (ez soilik industria sektorean)
- ✓ Digitalizazioa lehiakortasuna hobetzeko aukera batean bihurtu daitezke (lehiakortasuna digitalizazioaren eskutik etorriko da hurrengo urteetan eta enpresek ezin dute tren hori pasatzen laga). Digitalizazioa zeharkako gai bihurtzea da gakoa (beste gai transbertsal batean bihurtzea beharrezkoa da -pertsonek kontsumo-ohituretan, enpresen lehiakortasunean, etab. Eragiten duen arloa-).
- ✓ Ekonomia zirkularra aukera bezala ikusten da ekintzailtza bultzatzeko.
- ✓ Bertan ekoiztutako produktuen eta bertan sortutako/eskaintutako zerbitzuen aldeko eredu itzuli egingo da
- ✓ Landalurrea: lur jabeen belaunaldi-arte aldatzea. Aukera bat da, lurra ulertzeko eta beratu kudeatzeko ikuspegi berriak dakartzalako eta baita lan egiteko modu berriak ere.

- ✓ Bergaran kokatzen dira 1. sektorearekin zerikusia duten egitura lagungarriak (eskualdeko Nekazaritza Bulegoa OCA eta Landa Garapenerako Elkartea)
- ✓ Merkataritza-sare indartsua.
- ✓ Lanbide-heziketa indartsua eta enpresa ehundurari oso lotuta dagoena. Lanbide Heziketako eredu indartsuak (Begarako Lanbide Heziketako maila altuak, kalitate- eta teknologia-maila handikoa eta industriari oso lotuta dagoena), aukera eman du maila altuko industria-sektore lehiakor baten beharrei erantzuteko eta oso ondo ordaindutako lanpostu ugari sortzeko.
- ✓ Enpresa txiki asko daude, lan egiteko garaian biziak eta malguak direnak.
- ✓ Egia da industria sektorean ekiteak gero eta inbertsio handiagoak eskatzen dituela, baina, galera garrantzitsuak egon direla onartuz, oraindik sektore indartsua da Bergaran eta aukerak eskaini ditzake.
- ✓ Garrantzia eman beharko genioke dibertsifikazioari. Gaur egun errazagoa da abian dagoen enpresa batetik beste enpresa bat sortzea, hutsetik enpresa berri bat ateratzea baino. Horretarako, enpresetan berrikuntza dinamikak sustatu beharko lirarteke, bereziki laguntzak horretara bideratuz.
- ✓ Elkarlanean aritzeko ohitura errotuta dago (Enpresare edo FEX horren adibide dira) . Beraz, aldaketarako oinarriak eta aurrekari sendoak baditugu. Gainera, Fex nazioarte mailan aritzeko prest dago (mundu mailako enprekin lotura eta harremana du ere). Enpresare nahiz Fex ekonomia-palankak dira lehiakortasunean, enpresen arteko lankidetzan, berrikuntzan, etab.
- ✓ Enpresen kudeaketa hobetzeko eta sustatzeko asmoz, Enpresare aukera ezin hobea da.
- ✓ Pandemiak irtenbide ekonomiko eta sozial berrien bila jarri gaitu eta horrek lana sortzeko eta lortzeko aukera berriak ekar ditzake.
- ✓ Energiaren jasangarritasuna: Bergaran birgaitze lanetan diharduten eskualdeko enpresa garrantzitsuak daude eta eskaera gero eta altuagoa da. Beste horren beste gertatzen da energia berriztagarrien arloan aritzen diren enprekin. Sektore interesgarriak izan daitezke sustapen dinamikak bultzatzeko. Hidrogenoari dagokionez, aukerak sor ditzakeen beste elementu bat da (hidrogenoa tolerantzen duten torlojuak bultzatzea interesgarria litzateke -hidrogenoak oso ezaugarria bereziak ditu eta espezializazioa beharko da arlo honetan).
- ✓ Udalak lan-kontratazioak bultzatzea enpresa pribatuekin lankidetzan.
- ✓ Lankidetzak publiko-pribatua (arrakastaren giltzarrietako bat)
- ✓ Bergarako enpresek aldaketen aurrean egokitzeko ahalmena eta gaitasuna dute eta hala erakutsiko dute historian zehar. Hala ere, etorkizunean aldaketak bortitzagoak izan daitezke eta areagotu daitezkeenez, aldaketen aurreko egokitzapen-gaitasuna erronka batean bihurtu daiteke. Beraz, oso garrantzitsua da joeren inguruko informazio eguneratuta eskuartean izatea (ingurumena, ekonomia, gizartea, digitalizazioa, etab.).
- ✓ Udalak bertako enpresen aldeko apustua egitea, bere eskumenen baitan (Begarako enpresak babestea: daudenak indartu eta gehiago sortzen lagundu -ekintzaitza bultzatzen jarraitu-).
- ✓ Larramendi promozionatu beharko litzateke, Bergararentzat interesgarriak diren proiektuak erakartzeko eta horretarako, Spirilurrekin lankidetzan aritu. Horrela, besteak beste, enpresa-traktoreak erakar ditzakegu Bergarara.
- ✓ Plan Estrategiko Jasangarria Europatik datozen dirulaguntzak erakartzeko aukeran bihurtu daitezke (bertan jasotako ekintzak definitzerako orduan kontuan izan beharreko alderdi bat da).
- ✓ Eredu ekonomiko eta sozial orekatua, ongizate soziala lortzeko ezarria
- ✓ Kultura industrial historikoa eta orainaldia
- ✓ Azpiegitura zientifiko teknologikoa
- ✓ Enpresa-ekosistema ekintzailea, elkarri konektatuta eta konpromisoa erakusten duena
- ✓ Enpresen nazioartekotze progresiboa
- ✓ Gizartean kultura eta balioak egotea

- ✓ Bergaran, batez ere ETEetan, herrian oso errotuta dagoen enpresa-sektore bat dagoela nabarmendu da.
- ✓ Ahalegina eta lanerako gaitasuna. Betidanik, balio kultural horiengatik nabarmendu dira enpresa bergararrak.
- ✓ Udalak proiektu berritzaileen alde egiteaz gain, horien dinamizazioan aktibo izatea (ekonomia zirkularrean, etab.)
- ✓ Bergarako Hirigune Historikoa birmoldatzea eta egokitzea aukera bat izan daiteke tokiko merkataritza eta ostalaritza suspertzeko, eta are gehiago zentroan antola daitezkeen gizarte-, kultura- eta kirol-jarduerak areagotzen badira.

Oinarri horietatik abiatuz, 2030 urtera begira Bergarako garapen ekonomikoa bultzatzeko lortu beharreko **helburuen eta erronken zerrenda** jaso da (hauek aholkularitza-enpresak aztertuko ditu eta helburutan bilakatuko ditu:

- Bergara berritzailea, talentuen babesa eta zaintza bultzatzen duena
- Aldaketei azkar egokitzeko gai den enpresen sarea sortzea
- Digitalizazioa zeharkako gai batean bihurtzea
- Trantsizio sozioekologikoa bultzatzea (horretarako beharrezkoa da eremu sozioekonomiko produktiboa lortzea: lokalagoa, jasangarriagoa, etab.)
- Lehen sektorea suspertzea, jarduera ekonomikoa kalitatearekin zein naturaren zaintzarekin uztartuz eta oreka lortuz.
- Herritar guztientzat lan duina eskaintzeko gai den Bergara bultzatzea
- Ekonomia zirkularreko ziklo oso bat maila lokalean garatuta izatea (industria sektorean, hezkuntzaren arloan, bertako ekoizpenean eta ekoizitako produktuen merkaturatzean).
- Herri mailan dauden lan-bilatzzaileen eta lanpostuen arteko erlazioa hobetzea
- Ekonomia-eragileen arteko inplikazioa handitzea eta sektore guztien partaidetzarako sarea sendoa osatzea
- Trantsizio sozioekologikoari modu egokian erantzuten dion Bergara diseinatzea (aukerak aprobetxatzen dituen eta eraldaketari aurre hartzen diona)
- Bergaran sortutako enpresen eta bertan garatutako proiektuen aldeko apustua egitea, lankidetzaren publiko-pribatua ere sustatuz
- Bergara ekonomikoki erakargarria bilakatzea (inbertsioetara begira, turismoari begira, prestakuntzari begira, etab.)
- Eragile ekonomikoen arteko lankidetzarako eredu hobek eta dinamikoagoak lortzea (hau da, enpresa-ehuna lehiakorrago izateko lankidetzaren sare eraginkorrak eta aktiboak bultzatzea)
- Enpresa marka indartzea, Bergarara proiektu berritzaileak erakartzeko (Gipuzkoa mailan nahiz merkatuan ezaguna den garapen-maila handiko marka sustatzea).

2. dinamikarekin amaitu ostean, hurrengo bileran, helburuetatik abiatuaz izaera ekonomikoko ekintzak adostuko direla azaldu dute aholkulariek. Bestalde, gaurko bilerara etortzeko aukerarik izan ez duten eragileei eta baita gaurko saiora bertaratu direnei ere, ekarpenak egiteko aste beteko epea ematea adostu da.

Honenbestez, bilera 11:35etan amaitu da.